

Kleto Madariaga Gorosabel
Antzuola, Gipuzkoa (1899-1988)

Aurkibidea

Biografia

Antzuolako kalean jaio eta bizi izan zen, herriko plazan, hain zuzen ere.
Antzinako kontu ugari kontatu zituen.

Zintak

ANT-003

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Madariaga Larrañaga, Maite
- **Data:** 1988-01-03
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Jai egunetan meza eta bezperak

- **Erref:** ANT-003/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Jai egunetan mezara joan behar. Bezperak ere egoten ziren, eta derrigorrezkoa izaten zen joatea. Ondoren erromeriara. Neska-laguntzea.</p>

Transkripzioa

- Jaixen mezia entzutzen giñuan. Gero orduan bizperak egoten zian egunero, zera, jaiero. Oin ez dao hori, baiña [ama bizperetara jun bihar izaten zan] beti.

- Ze dia bizperak?

- Ba, zian hiruretan, atsaldian hiruretan. Abadia juten zan korora ta kantatzen zittuen beran [...] eta...

- Eta gero ze eitten ziñuen jaixetan, domeketan-eta?

- Bueno, gero erromerixara Uzarragara edo norabait.

- Giro ona eitten zebanian edo...?

- Erromerixia zeuan lekuan, klaro.

- Eta txarra eitten zebanian egoten zian erromerixak?

- Kalia ibili bihar tabernarik taberna.

- Neskak eta mutillak?

- Mutillak bakarrik kalia. Mutillekin. Neskekin gabian. Edo erromerixan. Gero neska-laguntzera aramaittakua jotzen zebanian. Gero basarrin batera neska-laguntzera.

2. Zinera Bergarara

- **Erref:** ANT-003/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinera Bergarara. Lehenengo kafea hartzen zuten eta ondoren zinera. Antzuolara oinez itzultzen ziren.

Transkripzioa

- Zinera-ta juten ziñaten?

- Bai, zinera beti. Jaiero[-jaiero] juaten giñan, oiñez. Orduan ez zeuan [komodidadeik] eta etorri be oiñez ein bihar.

- Nora juten ziñaten?

- Zinera.

- Bai, baiña nora? Bergarara, Zumarragara...?

- Bergarara. Bergarara, hemen ez zeuan zineik eta. Anbrosionera.
- Beti Bergarara?
- Beti Bergarara.
- Ta jente asko juten zan zinera-ta?
- E?
- Jente asko juten zan?
- Bai, dana betetzen genduan. Dana.
- Autobusik-eta bazeuan lehen?
- Lehenengo juten giñan Amerikanuanera. Han kafia hartzen giñuan, ta ordua zanian, zinera juten giñan. Ta [hango...] akabautakuan, taka-taka Antzuolara oiñez. Orduan ez zeuan holako komodidadeik.
- Jente asko juten zan Antzuolatik Bergarara?
- Askok ez. Hamarren bat. [Lehelengo Amerikanuanera] juten giñan ta Amerikanuanian kafia hartzen giñuan.

3. Inguruko herrietako jaiak

- **Erref:** ANT-003/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Inguruko herrietako jaietara ere joaten ziren: Zumarragara; Elosura...

Transkripzioa

- Eta beste edozein herrittako jaietara juaten ziñaten?
- A! Bai, bai. Zumarragara, Villarrealera, Oñetira be bai, [Arantzazura] be bai...
- Askok orduan...
- Bai.
- Eta oiñez juten ziñaten leku guztittara?
- Ez, ez. [Arantzazura], ba, automobillen baten edo... beste modu batera. Elosura be bai. Elosun han ibiltzen dian azkoittiarrekin-ta dantzan ein ta...
- Bai?
- Gero etortzen giñan [...] halakon baten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com